

..

ERRAMU ETA PASIONEKO IGANDEA B

Lehen irakurgaia

(Jainkoaren zerbitzariak bere oinazeak onartzen ditu)

Izai profetaren liburutik 50,4-7

- 4 Jainko Jaunak ikasle onaren mintzoa eman daut,
jakin dezadan nik ere akituari hitz pizgarria emaiten.
Hitzak iratzartzen nau goiz guzietz,
goiz guzietz iratzartzen, ikasle onak bezala entzun dezadan.
- 5 Jainko Jaunak beharria ideki daut:
eta nik ez diot kontra egin,ez dut gibelerat jo.
- 6 Bizkarra eskaini diotet jotzen ninduteneri,
eta matelak , bizarretik tiraka ari zitzaizkidaneri.
Begitartea ez dut zaindu laido eta tuetarik.
- 7 Jauna dut laguntzaile; horrengatik ez naiz lastu;
horrengatik begitartea harria bezala gogor egin dut,
eta badakit ez naizela ahalgetuko.

Pasaia hau irakurtzean, hitz bat heldu da mihira: "konfiantza" hitza. "*Jauna dut laguntzaile; horrengatik ez naiz lastu.*" Adam bertzela jokatu zen, Jainkoaz mesfidatu baitzen. Horrela zen biziaren iturria den Jainkotik berexi eta heriotzera deraman bidean sartu.

"Hitzak iratzartzen nau goiz guzietz...Ikasle onak bezala entzun dezadan." Entzuten duenak konfiantza egiten du.Eta"*Jauna du laguntzaile*", horrela gai naiz "*jakin dezadan nik ere akituari pitzgarria emaiten.*" Dena Jainkotik heldu da : "*Jainko Jaunak beharria ideki daut.*"

Profetaren hitzak jendea inarosten du. Eta ordainez hau kontra jartzen zaio :"*Bizkarra eskaini diotet jotzen ninduteneri...*" Bere indarra profetak Jainkoan du aurkitzen, hunen ganik heldu zaizkion solasetan: "*Hitzak iratzartzen nau goiz guzietz*" eta "*badakit ez naizela ahalgetuko.*"

21 Salmoa

Lelo : Nere Jainkoa, nun zaude nun ?
Nitaz urrikal, otoi, entzun !

**Ikus orduko, guziek neri trufa, irri,
Ezpain muturrez eta buruaz keinuz ari:
“ Jaunari zagon, libra dezala, bego hari;
Ken dezala, ken, maite duenez hor ageri.”**

**Zakur salbaiak ni nolaz irets badabilzka,
Gaizki egile osteak dauzkat inguruka.
Esku zangotan egin dautate zilo neri,
Hezurak ditut guziak oro nik ageri.**

**Jauntzi zatiak hartu dauzkitet beren sari,
Egina dute soingainekoaz: “Ea , nori? “
Nitarik, otoi, ez egon, Jauna, beti urrun!
Nere laguntza, zatozkit laster nere lagun!**

**Zure izena aipatuko dut anaieri,
Bil egunean eman zure berri.
Jainkozaleek, eskerrak eman Jainkoari,
Izraeldarrek, beldurrez, maitez has kantari!**

Salmo hau desterrutik, Babilonetik, itzuli eta egina da. Han Izraeldarrek aintz sofritu dute, baina azkenean libratuak izan dira eta hemen beren bozkarioa kantatzen dute. Bai eta ere salmo huntan ikus daitaiteke sofritzen duenaren oihua, Israel esklabo zeneko garrasia bai eta ere, geroago, Kristok, bere pasionean, Aitari buruz atera auhena, galdatuz zergatik zuen abandonatu.

"Zure izena aipatuko dut." Biblian horrek erran nahi du Jainkoa beti arras hurbil dugula gure mundu huntako bideetan, estekan gauzkatzen esklabotasun guzietarik gu libratu nahiz. Bai salmo hau esker onezko otoitz bat da.

Azkenik ikusten dugu lau ebanjelistek salmo huntako hitzekin aipatzen dutela nola, Golgotan, soldadoek Jesusen soin-gainekoa partekatu zuten : *"Jantzi zatiak hartu dauzkitet beren sari, egina dute soingainekoaz : "Ea,nori ?" (Sal 21,19).*

Bigarren irakurgaia

(Jesus Jauna apaldua eta goratua)

Jondoni Paulok Filipeko girixtinoeri 2, 6-11

- 6 Jesu Kristo, Jainkogoia ukanki eta,
ez da gogor lotu Jainkoaren berdina izaiteari.**
- 7 Aitzitik, bere nahitara hustu da,
esklabogoa hartu, eta gizakien iduriko bilakatu.
Gizaki bezala agertuz,**
- 8 apaldu da, hiltzeraino obedituz, gurutzean hiltzeraino.**
- 9 Hortakotz, denen gainetik goratu du Jainkoak
eta izen guzietan gorena eman dio,**
- 10 Jesusen izenaren ohoretan,
zeruan, lurpean eta lurpean, guziak belaunika daitezen,
eta mihi orok aitoren dezan**
- 11 Jaun dela Jesu Kristo Jainko Aitaren aintzarako.**

"Hortakotz, denen gainetik goratu du Jainkoak..." Hortakotz, iduri luke Jainko Aitak sari bat bezala eman diola Jesusi goratze hori, apaldu delakotz. Ez, Jainkoak emaiten duen guzia urrik emaiten du, ez zerbaiten ordain, mereximenduen ordain, baina bai, grazia hutsez.

"Jainkogoia ukanki eta". Ez dakigu xuxen Paulok letra hau noiz idatzi duen, baina dudarik ez da ebanjelioak baino lehenago idatzia izana dela. Horrek erran nahi du haste hastetik, garbiki predikatua izan dela Jesus Jainko zela eta beraz betidanikakoa zela.

"Jainkogoia ukanki eta, ez da gogor lotu Jainkoaren berdina izaiteari". Justuki, Jainko delakotz badaki Amodioa zer den, Amodioak urrik duela emaiten, Amodioaren mundu hortan ez duela balio bere dretxo edo eskubideak aipatzea! Nahiz Jainko izan, ez da *"gogor lotu Jainkoaren berdina izaiteari."*

"Eta izen guzietan gorena eman dio." Bai, Jainko izena ! *"Jauna da Jesus"* erran nahi baita Jainko dela Jesus. *"Zeruan, lurpean eta lurpean, guziak belaunika daitezen."* Izaik idatzia zuen : *"Belaun oro nere aitzinean makurtuko da, eta mihi orok nere izenean zin egingen..." (Is.45,23)*

"Hiltzeraino obedituz" dio Paulok. Jesusek bere lurpeko bizia umilki eta konfiantzaz beterik ereman du. *"Obeditu"* horrek erran nahi du beharri eman diola bere Aitak erraiten zionari, beharri eman konfiantza osoan, baitzakien entzuten zuen guzia Amodioaren iturritik zetorrela!

"Eta mihi orok aitoren dezan Jaun dela Jesu kristo Aitaren aintzarako." Aintza, mugagabeko Amodioaren adierazpena da, Jesusek lur huntan ereman duen biziaren aintza!

Jesu Kristo, guri mintza, argi gure bihotza!
Kristo gurutzeraino zaiku apaldu;
Horra zertako den emana denak baino gorago.

Jesu Kristo gure Jaunaren Pasionea san Marken liburutik 14,1-15,47

Ohart huni: 3 seinale hauek diote nor den mintzo: +: Kristo; K: kondalaria; S: besteak.

- 1 **K** Handik bi egunen buruan, Bazkoa eta Altxagarrigabeko besta zen.
Apezburu eta lege-irakasleak
Jesus maltzurkeriaz nola arrasta zabiltzan, hiltzeko.
- 2 Erraiten zuten:
S “Ez gero besta egunean, herrian nahasmendurik ez dadin izan.”
- 3 **K** Jesus Betanian zen, Simun lepradunaren etxean.
Mahainean zagolarik, emazte bat etorri zen,
harri xurizko untzi batean nardo garbizko usain gozo baliosa berekin zuela.
Untzia hautsi eta Jesusi buru gainerat ixuri zion.
- 4 Batzuek, hasarre, elkarri zioten:
S “Zertako gal usain gozo hori?
5 Hiru ehun denarioz goiti sal zitaken eta dirua behartsueri eman.”
K Eta marmar ari ziren emaztearen kontra.
- 6 Bainan Jesusek erran zioten:
+ “Utzazue! Zergatik nardatzen duzue?
Egintza ona egin du nerekin.
- 7 Alabainan behartsuak beti zuekin ditzuzue
eta nahi duzuenean, ongia egiten ahal diozue.
Bainan ni, ez nauzue betiko.
- 8 Hunek ahal zuena egin du:
aitzinetik gantzutu du nere gorputza hilobirako.
- 9 Egiaz diozuet: mundu guzian barna,
Berri ona kridatuko den toki guzietan
aipatuko da hunek egin duena, hunen oroigarri.”
- 10 **K** Judas Izkariot, Hamabietarik bat, apezburuenganat joan zen,
Jesus heien eskuetarat eman nahiz.
- 11 Hori entzutean boztu ziren, eta dirua agindu zioten.
Eta Judas, Jesus heien eskuetarat emaitako paradaren bila zabilan.
- 12 Altxagarrigabeko Ogien bestako lehen eguna zen,
Bazko-bildotsaren hiltzeko eguna.
Dizipuluek Jesusi erraiten diote:
- 13 **K** “Non nahi duzu prestaketak egin ditzagun zure bazko-afarirako?”
Bere dizipuluetarik biga igortzen ditu, erranez:
+ “Zoazte hirirat, eta pegar bat ur deraman gizon bat
etorriko zaitzue biderat: jarraik hari.
- 14 Eta sartuko den etxeko nagusiari errozue:
‘Hau dio Irakasle jaunak:
non da nere dizipuluekin Bazkoa jateko tokia?’
- 15 Harek gaineko gela handi bat erakutsiko dautzue,
apaindua eta prest.
Presta zazue han behar dena.”
- 16 **K** Joan ziren dizipuluak, eta hirirat heltzean,
Jesusek erran bezala aurkitu zuten dena;
eta Bazko-afaria prestatu zuten.
- 17 Arratsean, Jesus Hamabiekin etorri zen.

- 18 Mahainean jaten ari zirelarik, Jesusek erran zioten:
+ “ Egiaz diozuet: zuetarik batek,
nerekin jaten ari den batek, salduko nau.”
- 19 K Iluntzen hasi ziren eta bat bestearen ondotik galdezka :
S “ Nik ote ?”
- 20 K Jesusek ihardetsi:
- 21 + ” Hamabietarik batek, nerekin untzi beretik jaten ari denak.
Gizonaren Semea badoa,
Liburu Sainduek hartaz dioten bezala;
bainan dohakabea hura saltzen duena!
Hobe zukeen gizon harek sortu izan ez balitz.”
- 22 K Jaten ari zirela, Jesusek ogia hartu zuen,
eta benedizione otoitza eginez, zatitu zuen
eta eman zioten, erranez:
+ “ Har zazue, hau nere gorputza da.”
- 23 K Gero, kalitza hartu eta eskerrak erranik, eman zioten,
eta guziek hartarik edan zuten.
- 24 Eta erran zioten:
+ “ Hau nere odola da, Batasunaren odola, guzientzat ixuria.
- 25 Egiaz diozuet: ez dut gehiago arnorik edanen,
Jainkoaren erreinuan arno berria
edanen dutan egun hura arte.”
- 26 K Salmoak kantatu ondoan, Olibetako mendirat atera ziren.
27 Jesusek erraiten diote:
- 28 “ Guziak behaztopatuko zirezte, izkiriatura baita:
Joko dut artzaina, eta ardiak barreiatuko dira.
Bainan piztu ondoan, aitzinetik joanen nitzazue Galilearat.”
- 29 K Petrik orduan:
S “Denak erortzen badira ere, ni ez.”
- 30 K Jesusek erraiten dio:
+ “ Egiaz diozut, egun, gau huntan berean,
oilarrak bietan kantatu aitzin, zuk hiruetan ukatuko nauzu.”
- 31 K Bainan Petrik gero eta areago:
S “ Zurekin hil behar badut ere, ez zaitut ukatuko.”
K Eta denek berdin zioten.
- 32 Getsemani deitu baratze baterat etorri ziren.
Jesusek bere dizipulueri erran zioten:
+ “ Zaudezte hemen, nik otoitz egin artean.”
- 33 K Petri, Jakobe eta Joani berekin hartu zituen.
Izaldura eta lastura senditzen hasi zen,
- 34 Eta erran zioten:
+ “ Hil zorian nago tristuraz.
Egon hemen eta zaudezte atzarririk.”
- 35 K Haratxago joanik, lurrerat erori zen, eta otoitzean ari zen,
ordu hura urrun zakion, ahal bazen.
- 36 Erraiten zuen:
+ “ Abba... Aita! Zuk ezin eginik ez da.
Urrun zazu niganik kalitza hau.
Bainan ez nik nahi dutana, zuk nahi duzuna baizik. ”
- 37 K Gero itzultzen da, eta dizipuluak lo aurkitzen ditu.
Petriri erraiten dio:
+ “ Zimun, lo zaude?
Ez duzu oren bat atzarririk egoiteko indarrik izan?
- 38 Zaudezte atzarririk eta otoitz egizue, tentaldian ez erortzeko:

gogoz kartsu izanik ere, ahula baita gizakia.”

39 K Berriz urrundurik, otoitz egin zuen hitz berak erranez.
40 Itzuli zenean, lo aurkitu zituen, begiak eroriak baitzituzten,
eta ez zakiten zer erran.

41 Hirugarren aldikotz etorri zen eta erran zioten:
+ “ Egizue lo, eta pausa zaitetze! Hortan bego! Ordua etorria da:
horra Gizonaren Semea bekatarien eskuatarat emana!
42 Jeiki, goazen! Hurbil da saltzen nauena.”

43 K Jesus mintzo zelarik oraino,
han agertu zen Judas, Hamabietarik bat,
eta jendalde bat harekin, ezpata eta makilak eskuetan,
apezburu, lege-irakasle eta zaharrek igorrorik.

44 Saltzaileak seinale hau emana zioten:
S “ Nik musu emanen diotana, hura da:
arrasta zazue eta ereman artoski.”

45 K Etorri orduko, Jesusenganat hurbildu eta erran zion:
S “ Irakasle jauna ! ”

K Eta musu eman zion.

46 Besteek eskua gainean ezarri eta arrastatu zuten.
47 Han zagon batek ezpata atera, apez nagusiaren mutila jo
eta beharria moztu zion.

48 Orduan Jesusek erran zioten:
+ “ Gaixtagin batentzat bezala,
ezpata eta makilak eskuan atera zirezte, nitaz jabetzeko !
49 Egun guzietz zuen artean nintzen Tenpluan irakasten,
eta ez nauzue arrastatu.
Bainan Liburu Sainduetan izkiriatsuak bete behar du. ”

50 K Dizipuluek Jesus utzi eta ihes egin zuten.
51 Mutiko gazte bat jarraiki zitzaion,
soinean mihise bat baizik ez zuela; lotu zitzaizkion.
52 Bainan harek mihisea utzi eta ihes egin zuen biluzgorri.
53 Jesus apez nagusiaren etxerat ereman zuten,
eta han bildu ziren apezburu, herriko zahar eta lege-irakasleak.
54 Petri jarraiki zitzaion urrundik, apez nagusiaren jauregi barneraino.
Eta mutilekin jarririk zagon, su ondoan berotzen.

55 Apezburuak eta Biltzar Nagusi guzia
Jesusen kontrako lekukotasun bila zabilzan,
heriotzera kondenatzeko, bainan ez zuten aurkitzen.

56 Ainitzek Jesusen kontra gezurrezko lekukotasunak
egiten bazituzten ere, heien lekukotasunak ez ziren berdinak.
57 Batzuek xutitu eta gezurrezko lekukotasun hau
egin zuten Jesusen kontra:

58 S “ Entzun diogu erraiten:
Giza eskuz egin tenplu hori suntsituko dut nik,
eta hiru egun barne beste bat eraikiko,
giza eskuz egina izanen ez dena.”

59 K Bainan hortan ere heien lekukotasunak ez ziren berdinak.
Orduan apez nagusiak, biltzarraren edian xutik,
galdegin zion Jesusi:
S “ Ez duzu deusik ihardesten
jende horiek zure kontra ateratzen dituzten salaketeri ?”

61 K Bainan Jesus ixilik zagon eta deusik ez zuen ihardesten.
Apez nagusiak berriz galdegin zion:
S “ Zu ote zira Mesias, Jainko benedikatuaren Semea ? ”

- 62 K Jesusek ihardetsi :
+ “ Ni naiz, eta Gizonaren Semea ikusiko duzue
Ahalguzidunaren eskuinean jarria,
zeruko hedoi artean etortzen.”
- 63 K Orduan, apez nagusiak bere soinekoak urratu zituen erranez:
S “ Ba ote dugu oraino lekuko beharrik ?
- 64 Entzun duzue blasfemia. Zer zaitzue ? ”
K Denek hiltzea merezi zuela erabaki zuten.
- 65 Batzu tuka hasi zitzaizkion,
eta, aurpegia estalirik, ukaldika erabili zuten, erranez:
S “ Asma zak, profeta ! ”
K Guardiiek ere mazelakoak emaiten ziozkatzen.
- 66 Petri beherean zagola, ezkaratzean,
apez nagusiaren neskato bat etorri zen.
- 67 Petri berotzen ikusirik, behatu zion eta erran:
S “ Zu ere Nazaretoko Jesusekin zinen.”
- 68 K Bainan ukatu zuen, erranez:
S “ Ez dakit, ez dut konprenitzen zer diozun.”
K Gero atera zen etxaitzinerat.
- 69 Neskatoak ikusi zuen, eta han zaudeneri berriz erraiten hasi zen:
S “ Hau heietarik da.”
- 70 K Petrik berriz ukatu zuen.
Geroxeago, han zaudenek erraiten zioten
S “ Bai zinez heietarik zira! Galilearra baitzira.”
- 71 K Orduan , Petri madarikazioka zin egiten hasi zen:
S “ Ez dut ezagutzen zuek diozuen gizon hori.”
- 72 K Eta berehala, bigarren aldikotz kantatu egin zuen oilarrak.
Orduan Petri oroitu zen Jesusek erran zion hitzaz:
Oilarrak bietan kantatu aitzin, hiruetan ukatuko nauzu.
Eta nigarrez hasi zen.
- 15,1 Argitu bezain laster, apezburu, zahar eta lege- irakasleak
bildu ziren, Biltzar osoa.
Jesus estekaturik ereman zuten, Pilatoren eskuetararat emaiteko.
- 2 Pilatok galdegin zion:
S “ Juduen erregea zira ?”
K Jesusek ihardetsi zion:
+ “ Zuk erraiten duzu .”
- 3 K Apezburuek salaketa ainitz egiten zuten haren kontra.
- 4 Pilatok galdegin zion berriz:
S “ Ez duzu deusik ihardesten ?
Beha zenbat salaketa egiten duten zure kontra.”
- 5 Bainan Jesusek ez zuen deusik gehiago ihardetsi,
Pilato harritu baitzen.
- 6 Bazko-besta guziz preso bat libratzen zuen Pilatok,
jendeak eskatzen zuena.
- 7 Bazen orduan Barrabas deitu bat,
nahasmendu batean gizon bat hil zuten
beste batzuekin batean preso zena.
- 8 Igan zen jendea Pilatoren jauregirat,
eta emaiten ohi ziotena galdatzen hasi.
- 9 Pilatok ihardetsi zioten:
S “ Nahi duzue Juduen erregea libratzea? ”
- 10 K Bazakien, alabainan,
apezburuek Jesus bekaizkeriaz emana ziotela eskuetararat.

11 Bainan apezburuek jendea berotu zuten , Barrabas libra zezoten.
12 Pilato berriz mintzatu zitzaieten:
S “ Eta zer eginen dut Juduen erregea deitzen duzuen huntaz?”
13 K Heiek orduan oihuka:
S “ Gurutzefika zazu!”
14 K Eta Pilatok :
S “ Zer gaizki egin du, bada ?”
K Heiek gero ta oihu handiagoz:
S “ Gurutzefika zazu !”
15 K Pilatok, orduan, jendeari atsegin emaitagatik
Barrabas libratu zioten, eta Jesus, azotarazi ondoan,
heien eskuetarar eman zuen, gurutzefika zezaten.
16 Soldaduek auzitegirat ereman zuten,
erran nahi baita gobernadorearen jauregirat,
eta soldadu talde guzia bildu.
17 Jantzi gorri bat eman zioten soinean.
Eta elorritzko korona bat bihurturik buruan ezarri.
18 Eta agurka hasi zitzaizkion:
S “ Agur, Juduen errege!”
19 K Kanaberaz buruan jotzen zuten, tu egiten zioten
eta, belaunikatuz, aitzinean ahuspez emaiten.
20 Trufatu ondoan, jantzi gorria kendu zioten,
eta bere soinekoak jantzi ziozkatzen..
Gero, kanporat ereman zuten, gurutzefikatzeko.
21 Landetarik etxerat zoan gizon bat, Simun Zirenekoa,
Alexandro eta Ruforen aita,
Jesusen gurutzearen eremaitera bortxatu zuten.
22 Golgota deitu tokirat ereman zuten Jesus.
(Golgotak “Buru-hezur” erran nahi du.)
23 Mirraz nahasi arnoa emaiten zioten, bainan ez zuen hartu.
24 Gero gurutzefikatu zuten,
eta haren soinekoak partekatu, xotxak ateratuz zer norentzat.
25 Bederatziak ziren gurutzefikatu zutenean.
26 Eta zergatik kondenatua zen izkirioak zion: Juduen erregea .
27 Jesusekin batean bi gaixtagin gurutzefikatu zituzten,
bat eskuinean eta bestea ezkerrean.
29 Handik iragaiten zirenek laido egiten zioten, burua higika erranez:
S “ Ea, tenplua suntsitu eta hiru egunez eraikitzen baituk,
30 salba zak heure burua! Jauts hadi gurutzetik!”
31 K Halaber, apezburu eta lege-irakasleek ere trufatzen zuten,
elkarri ziotela:
S “ Besteak salbatu ditu, eta bere burua ezin salba!
32 Mesias, Izraelgo erregea jauts dadila orai gurutzetik,
ikus eta sinets dezagun.”
K Harekin gurutzefikatuak zirenek ere laido egiten zioten.
33 Eguerditan, ilundu zuen lur osoan hiruak arte.
34 Hiru orenetan, Jesusek oihu handiz erran zuen:
+ “ Eloi, Eloi, lama sabaktani ?”
K Horrek erran nahi baitu:
+ “ Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zergatik utzi nauzu?”
35 K Hori entzutearekin, han zauden batzuek erran zuten:
S “ Horra Eli profetari deika ari zaiola.”
36 K Orduan norbait lasterka joan zen, mustuka bat ozpinean busti
eta kanabera baten muturrean ezarririk,

- edatera emaiten zion, erranez:
S “ Bego ! Ea Eli etorriko zaion, gurutzetik jaustera? ”
37 K Bainan Jesusek, oihu handi bat eginez, azken hatsa eman zuen.
Orduan, Tenpluko oihala bi pusketan urratu zen,
gaintetik behereraino.
38 Jesusen aitzinean zagon ehuntariak,
nola hil zen ikustean erran zuen:
39 “ Zinez, gizon hau Jainkoaren Semea zen.”
40 K Baziren han emazte batzu ere, urrunetik beha zaudenak;
heien artean, Maria Magdalena,
Jakobe gaztearen eta Joserren ama Maria, eta Salome,
41 Jesusi jarraitzen zitzaizkionak, haren zerbitzari Galilean zelarrik,
bai eta beste emazte ainitz, Jesusekin Jerusalemerat iganak.
42 Ilunabarrean, larunbat-bezpera baitzen,
bestarako prestaketen egiteko eguna,
43 Arimateako Josep etorri zen.
Gizon ospetsua zen, kontseiluko kidea,
Jainkoaren Erreinuaren beha zagona hura ere.
Pilatorenganat joaitera ausartatu zen,
Jesusen gorputzaren eskatzera.na.
44 Pilato harritu zen Jesus jadanik hila izaitez.
Ehuntariari dei egin eta galdatu zion noizdanik hila zen.
45 Ehuntariak berri emanik,
gorputza eremaiteko baimena eman zion Josepi.
46 Hunek hil-mihise bat erosi zuen, Jesus gurutzetik jautsi,
hil-mihiseaz inguratu, eta harrokan zilatu hilobi batean ezarri.
Gero, harri bat itzulikatu zuen hilobiko sartzearen hesteko.
47 Maria Magdalena eta Maria, Josepen ama,
non ezartzen zuten beha zauden.

Markek kondatzen daukun Pasionean bi berezitasun : Jesusen bakartasuna eta ixiltasuna.

- Jesusen bakartasuna : Marken arabera, Jesus bakartasun handian da : Petrik arnegatu duenetik, adixkiderik ez du bere inguruan. Emazteak aipu dira, bainan hil ondoan.

- Ixiltasuna, harrigarria da : auzian zenbait hitz, eta gero, dio Markek, “*Jesusek ez zuen gehiago deusik ihardetsi*”. Pilato bera ere harritzen da : « *Ez duzu deusik ihardesten ?* » (15,4) Gero, kurutzean hitz bakar bat : « *Eloi, Eloi, lama sabactani ?* » Erromatar soldado baten gogoan, etsipenaren oihua da. Bainan Judu batentzat ez : garaipen kantu baten lehen hitzak dira, 21.salmoarenak. Eta salmo hori ez da etsipenarena, ez eta dudarena ere.

- Jesusen bakartasun eta ixiltasunaren aitzinean, nolaz ez galdegin : « *Zer du segetu hori ?* » Gizon hori jendearen estimu goretetik peko errekarat erortzen da ; errege bezala sartzen hirian, eta gero hiritik kanpo gaizkile bat bezala kurutzetik dilindan ; Jainkoak igorria bezala onartua (« *Benedikatua Jaunaren izenean datorrena* ») eta gero blasfematzaile bezala kondenatua, legearen izenean, horrek erran nahi baitu Jainkoak madarikatzen duela ; Mesias bezala, erran nahi baita Izraelen errege, libratzaile, eta salbatzaile bezala goraiatua jendeen ahotan, eta zaku eta trapuzko auzi baten ondotik xahutua.

- Osperik handiena onartu du, eta berdin ahalgerik lotsagarriena. Hortan ere, bizi guzian atxiki duen segetua golkoan dauka. Piztuko delarik dute konprenituko dizipuluek.

- Iduriz, Marken kondaira murrizak Jesusen mixterioaren bi alderdi argitan ezartzen ditu : Mesias-Errege eta Mesias-Apez.

- Mesias-Errege : galde, trufa edo baieztapen itxuran, Jesusen erregegoa kondairaren erdigunean da. Pilatoren lehen galdea, gizon horri, hau da : « *Juduen erregea zirea ?* » Jesusek ez du errepostu garbirik emaiten : “*Zuk hala erraiten duzu.*” (15,2) Pilatok berak, geroago, titulu hori bietan emaiten dio Jesusi : “*Nahi duzue juduen erregea libra dezazuetan?*” (15,9) eta “*Zer egingen dut juduen errege deitzen duzuen huntaz?*” (15,12) Eta bitxi dena : nehork ez du kontrakorik erraiten! Gero horra soldadoen trufak, jauntzia, korona eta oihuak : “*Agur, juduen erregea !*” Apezburu eta lege irakasleek Jesus trufatzen dute : “*Mesias, Izraelgo erregea, jauts dadila orai kurutzetik*” (15,32).

- Jesusen mixterioaren bigarren alderdia : Mesias-Apeza. Markek apezburuen eta bakarrik heien bizkar ezartzen du Jesusen heriotzea : heiek deramate Jesus Pilatoren etxerat, heiek kudeatzen auzia Golgotaraino. Pilatok Jesus galdekatzen duenean : “*Apezburuek salaketa anitz egiten zuten haren kontra.*” (15,3) Heiek dituzte jendeak axikatzen Pilatok Barrabas libra dezan (15,11). Pilato ez da petzero : “*Bazakien apezburuek Jesus bekaizkeriaz emana ziotela eskuetarat.*” (15,10) Markek dio (Joanirekin) soldadoek Jesus gorritz jauntzi zutela, trufatzeko. Gorria erregeen eta apezburuen kolorea zen. Trufari trufa : jauntzi gorria berena zutenek ez dute deusik nabaritu : pagano batek egingen du lehen fede-aitormena : “*Zinez, gizon hau Jainkoaren seme zen.*” (15,39).